

b) Adostokia

Gatazkaren gakoak jakin ondoren, eta gatazkak modu baketsuan eta hitzeginda konpontzeko oinarrizko gaitasunak entrenatu ondoren, ikasketa hori eguneroko harremanen praktikan eramatea programaren alderdi garrantzitsua da. Horretarako, **adostokiak** hartu ditugu; haurrek bertara jotzen dute adostasuna bilatzeko eta iritzi- ezberdintasunak konpontzeko.

Adostoki bakoitzean bi aulki daude, eta aulki bakoitzaren gainean sinbolo bat, aho bat edo belarri bat kokatzen da, entzuteko edo hitz egiteko tokia den arabera. Ziklo bakoitzaren ondoan bat dago, beste bat patiotik gertu, eta beste bat jangelaren ondoan. Toki horiek, beren konfigurazioa dela-eta, ikasleei beren artean sortu den gatazka aztertzen eta konponbidea bilatzen laguntzen dieten espazioak dira. Horretaz gain, txandak gordetzeko, modu aktiboan entzuteko eta modu asertiboan komunikatzeko gaitasunak entrenatzen dituzte.

Gatazka bat duten haurrek **adostokira** joaten dira beren borondatez, eta txandaka aulki bakoitzean esertzen dira, entzuteko edo hitzegiteko txanda duten arabera. Alderdi bakoitzak arazoari buruz duen ikuspegia, bere arrazoiak eta bere sentimenduak adierazten dizkio beste alderdiari, eta bitarte horretan, bestea entzun eta ulertzen saiatzen da. Prozesu horren ondoren, bi alderdiak beren kabuz erabaki bat lortzeko baldintzetan egon ohi dira. Hori lortzen denean, zigilatu egiten dute bien artean hartutako erabakia, eskua emanaz edo adiskidetasunezko beste keinu baten bitartez.